



Euskara Abian

Lehen Hezkuntzarako 3. mailarako Euskara Abian liburua Zubia Editoriala, S. L. ren eta Santillana Educación, S. L. ren Hezkuntza Argitalpenetarako Sailean **Joseba Santxo Uriarteren** eta **Teresa Grence Ruizen** zuzendaritzapean sortu, diseinatu eta gauzaturiko talde-lana da.

Liburu honen prestatze- eta argitaratze-lanean honako talde honek esku hartu du:

TESTUA

Idoia Aranberri

Joseba Santxo

Ainhoa Basterretxea

IRUDIAK

Alex Macho

Enrique Morente

EDIZIOA

Ainhoa Basterretxea

Joseba Santxo

PROIEKTUAREN ZUZENDARITZA

Joseba Santxo

Maite López-Sáez

Liburu honetako ariketak ezin dira inola ere liburuan bertan egin.
Ariketetan proposatzen ditugun taulak, eskemak eta gainerako
baliabideak ikasleak koadernoan egin beharrekoen ereduak baino ez dira.

OINARRIZKO GAITASUNAK

Liburuan zehar, **HEZIBERRI**ren arabera oinarrizko gaitasunen ikurrak ikusiko dituzu zenbait jardueraren ondoan. Ikur horiek kasu bakoitzean zer gaitasun lantzen den adierazten digute.

ARLOKO GAITASUNAK



Hizkuntza- eta literatura-komunikaziorako gaitasuna



Matematikarako gaitasuna



Zientziarako gaitasuna



Teknologiarako gaitasuna



Gizarterako eta herritartasunerako gaitasuna



Arterako gaitasuna



Mugimendurako gaitasuna

ZE HAR-GAITASUNAK



Hitzez, hitzik gabe eta era digitalean komunikatzeko gaitasuna



Ikasten eta pentsatzen ikasteko gaitasuna



Elkarbizitzarako gaitasuna



Ekimenerako eta ekintzaile-sena garatzeko gaitasuna



Izaten ikasteko gaitasuna

Edukien mapa

Unitateak			Irakurgaia	Hizkuntzaren erabilera	Ortografia
1	Ondo ibili! <i>Bidaia prestatzen</i> 🔊	6	Literatura-testua: <i>Neguko egun batez</i> 🔊 8	Nork kasua 12	Silaba 14
2	Uraren ederra! <i>Txipli-txaplaka</i> 🔊	22	Literatura-testua: <i>Sardina-latako sirena</i> 🔊 24	Izenak 28	S, x, z 30
3	Natura zatika <i>Bai maketa polita!</i> 🔊	38	Literatura-testua: <i>Mugarra eta Arranaiz</i> 🔊 40	Zein? Zenbat? 44	Ts, tx, tz 46
4	Harri harrigarriak! <i>Azoka txikian</i> 🔊	54	Literatura-testua: <i>Harrizko deabrua</i> 🔊 56	Nolakoa? 60	Puntua eta bi puntuak 62
5	Goiz negu, bi negu <i>A zer eguraldia!</i> 🔊	70	Azalpen-testua: <i>Ikazkinaren mundu magikoa</i> 🔊 72	Ekintza 76	Komaren erabilera 78
LEHEN HIRUHILEKOAREN BERRIKUSKETA 86-87. Entzungaia: <i>Gabonetako zuhaitza</i> 🔊 ERANSKINA: Aditz-taulak,					
6	Gorputza astintzen <i>Kirola jolas</i> 🔊	88	Literatura-testua: <i>Belar-ilearen ipuina</i> 🔊 90	Lehen, orain, gero Aditzaren aldia 94	A itsatsia 96
7	Mendira nahi <i>Pagoetako natura-parkean</i> 🔊	104	Literatura-testua: <i>Botilako jeinua</i> 🔊 106	Oraintxe eta egunero Aditzaren aldia 110	H letra 112
8	Hagina dabilenean <i>Erosketak egiten</i> 🔊	120	Literatura-testua: <i>Laminak eta emagina</i> 🔊 122	Baldintza 126	Ba- partikula 128
9	Jaietan giro <i>Auzoko jaiak</i> 🔊	136	Literatura-testua: <i>Jose-lontxo Bildurbako</i> 🔊 138	Aginduak 142	S, x, z 144
10	Lurrak emana <i>Zuhaitzaren eguna</i> 🔊	152	Literatura-testua: <i>Ipurtargi txikia</i> 🔊 154	Adberbioak 158	Ts, tx, tz 160
BIGARREN HIRUHILEKOAREN BERRIKUSKETA 168-169. Entzungaia: <i>Asmatzaile xelebrea</i> 🔊 ERANSKINA: Aditz-ta					
11	Lanean fin <i>Suhiltzaileak</i> 🔊	170	Literatura-testua: <i>Nire aitaren lanbidea</i> 🔊 172	Ezeko esaldiak 176	H letra 178
12	Animalien artean <i>Baserri-eskolan</i> 🔊	186	Azalpen-testua: <i>Animalien moztarrok</i> 🔊 188	Noren, norekin, norentzat 192	R, rr 194
13	Herrian bizi <i>Liburutegira</i> 🔊	202	Literatura-testua: <i>Maria eta okin zekena</i> 🔊 204	Nora, norengana... Deklinabidea 208	Zenbakiak nola idatzi 210
14	Egin, desegin, berregin <i>Pedaldun auto galanta</i> 🔊	218	Jarraibide-testua: <i>Energia garbia...</i> 🔊 220	Zerez, zertaz, nortaz 224	Ordua 226
15	Iraganaren aztarnak <i>Iruña-Veleia bisitatzen</i> 🔊	234	Literatura-testua: <i>Udalekuetan</i> 🔊 236	Mugagabea 240	Data nola idatzi 242
HIRUGARREN HIRUHILEKOAREN BERRIKUSKETA 250-251. Entzungaia: <i>Kontuz ibili!</i> 🔊 ERANSKINA: Aditz-taulak,					

Harremanetan	Egiten jakin Testu-tipologia	Lexikoa	Literaturaz gozaten	Amaierako jarduerak
<i>Gizonak eta ilargia</i>  Azalpenak ematea 15	Oharrak 16	Hitzen osaera 18	<i>Igarkizuna</i>  19	<i>Lo egin ezinik</i>  20
<i>Itsasoko ura</i>  Usteak adieraztea 31	Komikia 32	Hitz motak 34	<i>Ilargia itsasoan</i>  35	<i>Aspaldiko kontuak</i>  36
<i>Azken orduko albistea</i>  Gertakariak kontatzea 47	Egunerokoa 48	Hitz eratorriak 50	<i>Hara non diren</i>  51	<i>Jentilarri trikuharria</i>  52
<i>Harri-zulatzailak</i>  Informazioa laburtzea 63	Egoerak deskribatzea 64	Egile-atzizkiak 66	<i>Zorroztarria</i>  67	<i>Kontuz, lanak!</i>  68
<i>Nolako negua...</i>  Arrazoiak ematea 79	Zorion-txartelak 80	Toki-atzizkiak 82	<i>Gabonetako olerkia</i>  83	<i>Lehen saria</i>  84
erakusleak, zenbatzaileak...				
<i>Elkarriketa</i>  Arrazoiak ematea 97	Pertsonen deskribapena 98	Esapideak 100	<i>Egia!</i>  101	<i>Bihotzeko azukre-koskorra</i>  102
<i>Ametza</i>  Irudia aztertzea 113	Gutuna 114	Sinonimoak 116	<i>Etxe zahar-zaharra</i>  117	<i>Treneko leihotik</i>  118
<i>Artisau-ogia egiten</i>  Jarraibideak ematea 129	Gonbidapena 130	Antonimoak 132	<i>Erroskila nola asmatu zen</i>  133	<i>Menu bitxia</i>  134
<i>Bozketa</i>  Iritziak ematea 145	Objektuen deskribapena 146	Esapideak 148	<i>Patxi Putxi Ibargutxi</i>  149	<i>Iragarkia</i>  150
<i>Loradendan</i>  Dakiguna azaltzea 161	Kartela 162	Hitz elkartuak I 164	<i>Urteko hilabeteak</i>  165	<i>Plazako zuhaitz zaharra</i>  166
ulak, deklinabidea...				
<i>Boluntario baten lana</i>  Gertakariak lehen. 179	Tokien deskribapena 180	Hitz elkartuak II 182	<i>Tiriki, tauki, tauki</i>  183	<i>Taj Mahal harrigarriak</i>  184
<i>Ku txoria</i>  Animaliak deskribatzea 195	Fitxa 196	Hitz elkartuak III 198	<i>Euliak</i>  199	<i>Saltxitxa-txakurra</i>  200
<i>Hiriko zaratak</i>  Objektuak deskribatzea 211	Posta elektronikoa 212	Onomatopeiak 214	<i>Xelebrelandian</i>  215	<i>Kromo-bilduma</i>  216
<i>Asmakari harrigarriak</i>  Zertarako den... 227	Jarraibideak 228	Esaera zaharrak 230	<i>Metalak</i>  231	<i>Laborategia etxean</i>  232
<i>Nork asmatu zituen...</i>  Orientabideak... 243	Posta-txartela 244	Hitzen familia 246	<i>Atabit-ko gaztelua</i>  247	<i>Opor-giroa</i>  248
deklinabidea...				

1

Ondo ibili!



Mintzarena

1 Aztertu irudia eta erantzun.

- Zertan ari dira pertsonaiak?
- Nora ote doaz? Nola dakizu?
- Zer eramango zenuke zuk leku horretara bidaiatzeko?
- Zerez joango ote dira hara?
- Nora joango zinateke gustura? Zerez?

HIZTEGITXOA

equipaje	egun-pasa
iparrorratz	ostatu hartu
bidaiatu	aterpetxe
txango	joan-etorri
ibilaldi	kanpin
ibilbide	kanpadenda

Entzumena

2 Entzun *Bidaia prestatzen* elkarrizketa eta adierazi esaldi hauek egia ala gezurra diren.

- Familiakoak Donostiara joango dira asteburua pasatzera.
- Astebururako eguraldi txarra iragarri dute.
- Aitak mapa eta botikina hartu ditu.
- Asteburuan, aterpetxe batean lo egingo dute.


Irakurmena

3 Irakurri alboko txartela eta erantzun.

- Nondik abiatuko da autobusa? Nora doa?
- Zein ordutan eta zein egunetan abiatuko da?
- Zenbat balio du txartelak?

4 Markatu txartelean ageri den informazioa.

- ☐ Eroslearen izena.
- ☐ Autobus-konpainiaren izena.
- ☐ Jarlekua.
- ☐ Bidaiari-kopurua.




 **5** BALIOETAN HEZTEA. Zaindu ingurumena.

Zure ustez, ona al da garraio publikoa erabiltzea? Zergatik?

Idazmena

6 Egin idazlan labur bat zure oporraldiari buruz.

- Non egon zara oporretan?
- Zerez joan zinen bertara?
- Zer egin duzu han?




EGITEN JAKIN



Oharra

- Idatzi al duzu inoiz oharren bat?
- Zertarako erabiltzen dira oharrak?

Oharrak zerbait gogorarazteko edo adierazteko erabiltzen diren testu laburrak dira. Oso erabilgarriak izaten dira, eta idazten errazak. Ikusiko duzu!





Neguko egun batez

Izar bat erori da zerutik lurrera. **Bart** izan da eta inork ez du ikusi. Isil-isilik erori da, eta euri tanten antzera **pausatu** da zelaian.

Zelaia berde dago, baina zelaia inguratzen duten zuhaitzek ez dute kolorerik, hosto guztiak galdu dituzte-eta. Zelai berde eta zuhaitz biluzien ondoan etxe bat dago. Kea dario etxearen tximiniari, larunbat guztietan bezala.

Larunbat goiza, da eta neska bat irten da etxetik kanpora. Basora abiatu da osteratxo bat egitera, zelai berde eta zuhaitz biluzien artean. Bidean doala, zer ikusiko eta, hara!, zerbait distiratsua. Zenbat eta **hurrago**, orduan eta distiratsuago bihurtu da gauza ezezaguna.

–Azkenean! Uste nuen ez zela inor bizi **paraje** hauetan.

–Nor zara zu? –galdetu dio neskak gauza argitsuari guztiz harriturik.

–Paraje hauetan ez al duzue inoiz begiratzen zerurantz? Ez al duzu ikusten izarra naizela?

–Bai, euria egin behar duen ikusteko begiratzen dugu zerura, adibidez. Baina izarrak gauez ateratzen dira eta gauetan lo egiten dut nik –erantzun dio neskak.

–Izarrak bizi diren tokia ezagutzen ez baduzu, nola itzuliko naiz ni etxera? –galdetu dio izarrak kezkaturik.

Izarra lurretik batu eta etxera eramatea pentsatu du neskak, aitik eta amak arazoa konpontzen eta izarra zerura bueltatzen lagunduko diotelakoan.

Sartu orduko, izarraren argitasunak gela guztiak bete ditu eta gurasoek bertan behera utzi dituzte larunbateroko zereginak. Denak izarrari nola lagundu pentsatzen hasi dira.

–Etxetik kanpo egoteko argi gutxi daukat. Hamabi ordu besterik ez –esan die izarrak.

–Eta zer gertatuko zaizu denbora hori igarotzean?

–Bada, itzali egingo naizela.

Lanari ekin diote berehala. Aitak liburuak aztertu ditu, horrelako kasuren baten bila, eta ama matematika-eragiketa zailak egiten hasi da, izarrak egin beharko duen bidea kalkulatzeko asmoz. Neska urduri dago, izarra apurka-apurka distira galtzen hasi dela ikusi du-eta.

Denborak aurrera egin ahala, izarra gero eta ahulago, gero eta itzaliago dago. Laster ilunduko du eta ez dute konponbiderik aurkitu oraindik.

–Irudimena erabili beharko dugu –esan du aitak.

Neskak eskuetan hartu du izarra eta leihoa ireki du.

–Begiratu gorantz –esan du amak.

–Eta begiak itxi –jarraitu dio aitak.

Seiak jo dituzte egongelako erlojuan.

Begiak ireki dituzte neskak eta haren gurasoek. Neskaren eskuak hutsik daude. Iluntasunean, izar argitsu bat ageri da, **dir-dir**, alderik alde, zerua zeharkatzen.

YOLANDA ARRIETA (moldatua)

bart: atzo gauean.

pausatu: gelditu, kokatu.

hurrago: hurbilgo.

paraje: alderdi, inguru.

dir-dir: distira eginez.



Irakurgaia lantzen

1 Azaldu. Zer gertatu zitzaien ipuineko pertsonaiei?



izarrari



neskari



gurasoei

2 Erantzun galderei koadernoan.

- Noiz erori da izarra zerutik, atzo gauean edo goizean goiz? Nora erori da?
- Nork aurkitu du bertan? Non bizi da izarra aurkitu duena?
- Asteko zein egunetan gertatu da ipuinean kontatzen zaiguna?

3 Deskribatu irudiko paisaia zure hitzez.



4 Azaldu esaldi hauek egia ala gezurra diren. Zuzendu gezurrak.

- Neska berehala konturatu da lurrean dagoena izarra dela.
- Izarra hartu eta etxera eraman du.
- Izarra itzali egingo da, izarrak bizi diren tokira itzultzen ez bada.
- Amak liburuak aztertu ditu izarrari laguntzeko.
- Guztion artean, berehala topatu dute izarrari laguntzeko modua.

5 Idatzi labur-labur. Nola amaitu da ipuina?

- ★ 6 Pentsatu izarra zarela eta zure etxera itzuli zarela. Kontatu beste izarrei zure abentura. Azaldu ikasgelan.

IPUINETIK HARAGO



7 Egin telebistako aurkezlearena eta azaldu ikus-entzuleei lurrera eroritako izarraren albisteak.

- Idatzi zirriborro batean gertakariak ordenan.
- Egin albistearen aurkezpena.
- Azaldu gertakariak ozen eta argi.

8 Asmatu izarra aurkitu zuen neskari egingo zenizkiokeen sei galdera.

- Pentsatu galderak eta idatzi.
- Antzeztu elkarrizketa ikaskide batekin. Ikaskideak neska balitz bezala erantzungo dizu eta erantzunak asmatuko ditu.



HITZEN HABIA

9 Lotu kontrako esanahia duten hitzak edo antonimoak.

itzali	■	segitu
pausatu	■	urrun
ilundu	■	piztu
hur	■	argitu

10 Adierazi. Zer esan nahi du nabarmendutako esapideak?

Gurasoek **bertan behera utzi** dituzte larunbateroko zereginak.

- ☐ Gurasoek lanean jarraitu dute. ☐ Gurasoek lan egiteari utzi diote.

11 Adierazi. Zer galdu behar dute zuhaitzek biluzik egoteko?

- ☐ Jantziak. ☐ Adarrak. ☐ Hostoak. ☐ Txorien habiak.

12 Ezabatu lerro bakoitzean sobera dagoen hitza, besteekin zerikusirik ez duena. Gero, egin esaldiak ezabatu ez dituzun hitzekin.

- izar – izara – izartsu – artizar
- lur – lurrikara – lurralde – elur
- argi – argitaratu – hargin – ipurtargi



1 Begiratu irudiari eta erantzun.

- Nor dago ilaran lehen tokian?
- Nor dago Nahiaren atzean?
- Nor daude ilaran azken tokian?
- Nor dago ilaran Iratiren atzean?
- Nor dago ilaran Koldoren atzean?

2 Osatu esaldiak, goiko ariketa kontuan harturik.

- Lehen tokia hartu du.
- Leireren atzean jarri da.
- hirugarren tokia hartu du.
- Laugarren dago.
- bosgarren tokia hartu du ilaran.
- azken tokian daude.

NORK KASUA

- **NORK kasuan** dauden hitzek **-k** hartzen dute hitz-bukaeran. Adibidez:
 - ▶ Zein **umek** du bizkar-zorroa?
 - ▶ **Umeak** eskua eman dio amari.
 - ▶ **Umeek** ilaran jarraitzen dute.

3 Jarri NORK kasuko -k letra hitz hauei.

ni ➤ *nik*

gu ➤ _____

Patxi ➤ _____

zu ➤ _____

zuek ➤ _____

Leonor ➤ _____

hura ➤ _____

haiek ➤ _____

guztiak ➤ _____

4 Egin esaldiak koadernoan, adibidean bezala.

Koldok bizarra du. Koldo bizarduna da.

- _____ haurra izango du laster. _____ haurdun dago.
- _____ txanoa du. _____ txanoduna da.
- _____ bibotea du. _____ da.
- _____ betaurrekoak ditu. _____ da.
- _____ gona du. _____ da.



5 Lotu bi atalak, esaldiak osatzeko, eta kopiatu koadernoan.

- | | |
|-----------|--|
| Txoriek ■ | ■ ez gara batere inozoak. |
| Guk ■ | ■ nire alboan eseri da zinean. |
| Gu ■ | ■ badakite hegan egiten. |
| Txoria ■ | ■ ariketa hau oso erraza dela uste dugu. |
| Gaizka ■ | ■ gauza asko ikasten ditu egunero. |
| Gaizkak ■ | ■ kanta-kantari dago zuhaitz gainean. |

6 Berridatzi testua, emandako hitz-bikoteetatik zuzena aukeratuz.



Krispetak eta beste

Mikel/Mikelek krispetak nahi ditu. Ama/Amak baimena eman dio pakete txiki bat erosteko.

Pozarren joan da *Mikel/Mikelek* saltokira eta saltzaileari *krispetak/krispetek* eskatu dizkio. Baina *krispetak/krispetek* egarria eman diotenez, *freskagarria/freskagarriak* ere erosi du. *Mikel gozozalea/gozozaleak*, ondoren, *gozokiak/gozokiek* ere erosi ditu. *Saltzailea/Saltzaileak* esan dio bost euro ez direla nahikoa, eta *ama/amak* diru gehiago eman behar izan dio dena ordaintzeko. Azkenean, *ama/amak* pixka bat haserretu da Mikelekin.

1 Irakurri elkarrizketa eta sailkatu nabarmendutako hitzak.

Ilargiko neska

- On-gi e-to-rri i-lar-gi-ra, lur-ta-rra!
–Hara! Ez nuen uste ilargian inor bizi zenik!
–Se-le-ne dut i-ze-na. Zu nor za-ra?
–Eta hitz egiten ere badaki, gainera!
–Ja-ki-na.
–Zergatik hitz egiten duzu silabaka?
–I-lar-gi-an de-nek hitz e-gi-ten du-gu ho-rre-la.
–Tira! Orduan... **Kai-xo, Se-le-ne, Ho-dei naiz!**



- Silaba bakarra dutenak: ► Bi silaba dituztenak:
► Hiru silaba dituztenak: ► Lau silaba dituztenak:

2 Kopiatu testua koadernoan eta banatu lerro-amaierako hitzak ongi.




Ilargian bizi

Ilargian bizitzea dibertigarria dela pentsatzen du jende askok, baina ez da egia. Ezta hurrik eman ere! Ilargian hariak eta zuloak besterik ez daude. Flotatzten ematen dut egun osoa, eta hasieran bitxia bazen ere, asperitu egin naiz honezkero. Lurrera itzultzeko irrikan nago!

3 Kopiatu eta osatu silabakako hitz gurutzatuak koadernoan.

1. Gure planeta.
2. Gauez zeruan dizdizka egoten den urruneko argi txiki bakoitza.
3. Gure planetaren satelite argitsua.
4. Gora begiratzuz gero ikusten dugun espazio zati urdina. Hodeiak ere bertan egoten dira.
5. Gure planetan bizi garen animalia adimendunak.



★ **1 Entzun Gizonak eta ilargia elkarrizketa, eta adierazi esaldi hauek egia ala gezurra diren.** 🔊

- Neskatoari ilargi beteak gazta itxura duela iruditzen zaio.
- Aitonak ilargiari buruzko ipuina kontatu dio.
- Ipuineko gizonak gazta handi bat ikusi zuten errekan.
- Gazta hura hartzeko eskailera bat erabili zuten.
- Azkenean, hiru gizonak erreko gazta hartu zuten eta den-dena jan zuten.



2 Adierazi. Zeinek du inozo hitzaren esanahi bera?

a) errugabe

b) kokolo

c) burutsu

★ **3 Ordenatu irudiak eta azaldu zure hitzez. Zer gertatu zen ipuinean?**



★ **4 Eman azalpenak ikaskideei eta kontatu gauzak ordenan.**

- Zein da zuri gehien gustatzen zaizun ipuina? Nork kontatu zizun edo non irakurri zenuen?
- Kontatu ipuin hori ikaskideei.
- Nolako ipuinak, istoriak edo filmak gustatzen zaizkizu zuri gehien? Zergatik gustatzen zaizkizu hainbeste?



Leire:

Mila esker zure osaba-izeben baserrira gonbidatzeagatik. Primeran pasatu nuen zurekin eta zure familiarekin.

Hurrengoan, nire etxean tokatzen da parrandatxoa!

Saioa

1

2

Garazi:

Gaur ezin izango zaitut euskal dantzetara eraman. Autoa matxuratu zait eta tailerrera eraman behar dut.

Deitu Ekainen amari eta galdetu ea berarekin joan ahal zaren.

Jan prestatuta utzi dizudan ogitartekoa, kemenez dantza egin ahal izateko.

Ondo ibili!

Aitatxo

3

Ama:

Ez ahaztu agindutako kromoak erosi behar dizkidazula.

Kromoen bila kioskora joan behar duzunez, ekarriko al didazu komiki bat ere?

Maite zaitut..

Beñat

1 Irakurri oharrak eta erantzun koadernoan.

- Norentzat da ohar bakoitza?
- Nork idatzi ditu oharrak?
- Non ageri da idazlea nor izan den eta hartzailea nor izan den?
- Nolakoak dira oharrak, luzeak ala laburrak?

2 Erantzun galderei eta kopiatu oharrak osorik zure koadernoan.

- Zein idatzi da zerbait gogorazteko?
- Zein idatzi da eskerrak emateko?
- Zein idatzi da informazioa eta aginduak azaltzeko?
- Pentsatu eta egin zerrenda. Zer beste gauza azaltzeko erabil daitezke oharrak?



3 Ordenatu ohar baten atal hauek eta idatzi oharra osorik koadernoan.

A! Ogitartekoa gozo-gozo egon da.

Garazi

Gero, bidaia-bulegora joango gara biak eta berandu helduko gara etxera. Hasi afaria prestatzen, mesedez.

Aitatxo maitea:

Eskerrik asko, aita!

Ama goiz etorri da gaur lanetik eta berak eraman nau euskal dantzetara.

4 Irakurri egoera hau eta prestatu oharra gurasoentzat.

Bidaia-bulegotik deitzen dizut. Esan gurasoei prest dituztela hegazkin-txartelak, baina aukeratutako hotelean ez dagoela lekurik. Esan lehenbailehen etortzeko beste hotel bat aukeratzera.

Esango diezu, mesedez? Mila esker!

Nire kontu! Ohar bat idatziko diet oraintxe bertan!



5 Aukeratu bi egoera hauetako bat eta idatzi oharra.


- Ikasgelako lagun baten etxera joan zara plastikako lan bat egitera. Han hartuko duzu askaria, eta, berandu amaituko duzunez, zure bila joan behar du norbaitek.
- Giltza batzuk aurkitu dituzu igogailuan. Auzokideren batenak direla uste duzu, eta oharra jarri duzu, jabeak berreskuratzeko zer egin behar duen esanez.

- | | |
|----------------|---|
| A. NORI | ➤ Jarri goiko aldean oharra norentzat den. |
| B. ZER | ➤ Azaldu labur-labur baina argi eta garbi zer nahi duzun. |
| C. NORK | ➤ Sinatu zure oharra. |

1 Sailkatu koadernoan beheko hitzak zerrenda banatan.



argi ilun ipurtargi
betilun argimutil ilunpe
argizari ilunabar



2 Kopiatu eta lotu koadernoan elkarrekin zerikusia duten hitzak.

oilo	■	■	haitzulo
hatz	■	■	astakirten
zulo	■	■	oilategi
kirten	■	■	behatz

(A red arrow points from 'oilo' to 'oilategi').

3 Esan goiko zein hitz dagokion definizio bakoitzari.

- Tresna batzuek eskuaz heltzeko duten atala:
- Zerbait alderik alde zeharkatzen duen irekigunea:
- Eskuen bukaeran ditugun atal mehe eta luzeetariko bakoitza:
- Oinen bukaeran ditugun hatzetako bakoitza:
- Oilarraren emea, arrautzak erruten dituen:
- Koba, haitz bateko zuloa:
- Harremanetan zakarra den pertsona:
- Oiloak gordetzen diren tokia:

4 Eman hitz gehiago kasu bakoitzean.

- zabor ➤ *zaborrontzi, zabortegi, zaborreria...*
- gela ➤
- esku ➤
- buru ➤

HITZEN OSAERA

- Zenbait hitzek atal bakarra dute, hau da, bakunak dira. Adibidez:
➤ *argi, ilun...*
- Beste zenbait hitzek beste atal bat edo hitz bat dute itsatsirik. Adibidez:
➤ *ipurdi + -argi = ipurtargi*
➤ *begi + ilun = betilun*

Igarkizuna

Errege batek zuen alaba bakarra,
pinpirina eta azkarra.

Errege zaharra egunzalea zen
eta gauez egiten zuen lo.

Alaba azkarra gauzalea zen
eta egunez egiten zuen lo.

Aralarko leizeetan zeukaten jauregia,
zilarrezkoa eta beilegia.

Zein da errege zaharra?

Zein, alaba azkarra?

JUAN KRUIZ IGERABIDE



1 Irakurri igarkizun tankerako olerkitxoa eta erantzun. Zein dira erregea eta alaba?

★ 2 Irakurri beste igarkizun hauek eta idatzi erantzunak koadernoan.

Puxtarri erraldoi bat
etengabe jira-bira
eta bere sabelean
hamaika bizi dira.

Eguzkia eta euria batera
zazpi kolore kalera.

Bizarrean bizi
izarak bezain zuri,
zeruaren ipurtargi.
Nork daki?

Behi beltz handi bat
erori zitzaigun gainerat,
ez gintuen zanpatu
baina denok itsu ginen geratu.

Kotoiak zeruan,
malkoak barruan,
orratz batez zulatuta
euria goian-behean.

★ 3 Irakurri olerkitxoa eta ikasi buruz.



Eguzki amandrea
badoa bere amagana.
Bihar etorriko da
denbora ona bada.





1 Irakurri testutxoa eta erantzun galderei.


Lurraren abestia

Albiste harrigarria heldu zaigu duela gutxi. Gezurra badirudi ere, Lurrak abestu egiten du. Horixe diote, behintzat, NASAko zientzialariek.

Abesti edo kantu bitxi hori Lur planeta inguratzen duten erradiazioek sortzen omen dute, eta espazioan dabiltzan satelite bik grabatu dute. Izan ere, gizakiok ezin dugu kantu hori aditu; entzun ahal izateko, antenak eduki beharko genituzke belarriak izan ordez.

Polita izango litzateke Lurrak eskaintzen digun etengabeko kontzertu hori entzutea eta abestiak nolako doinua duen jakitea. Martxosoa izango al da? Ala lasaia? Batek daki! Baina, egia esan, gure planetak bizi duen egoera ikusita, ez dut uste alaiegia izango denik. Zer uste duzu zuk?

- Zein da testuan aipatzen den albiste harrigarria?
- Nork eman du albistearen berri?
- Nork entzun edo grabatu du kanta? Gizakiok entzuteko gai al gara?
- Zure ustez, nolakoa izango ote da kanta hori? Zer doinu izango ote du?



2 Aukeratu hitz zuzena eta berriatzatzi esaldiak.

- Landarea/Landareak ura behar du.
- Zure gona/gonak marraduna da.
- Osaba Josu/Josuk gitarra jotzen daki.
- Aita/Aitak esan du berehala joateko.
- Lurra/Lurrak abesten ari da.



3 Idatzi esaldiak koadernoan hitz-bikote hauekin.

txakurrek jan

neska jolastu

Mirenek irakurri

4 Zuzendu hitzen zatiketan egindako akatsak.

- | | |
|--------------|---------------|
| ■ es-nat-zen | ■ e-lur-ra |
| ■ mo-torr-a | ■ ot-so-a |
| ■ kak-a-o-a | ■ tre-nbi-dea |

5 Entzun Lo egin ezinik elkarrizketa eta adierazi erantzun zuzena. 🗣️

- Zergatik ari da Unax negarrez?
 - a) Gose delako.
 - b) Ezin duelako lo egin.
 - c) Inork ez daki zergatik.
- Nor esnatuko du horrela jarraitzen badu?
 - a) Auzoko guztiak.
 - b) Herritar guztiak.
 - c) Mundu guztia.
- Nori bururatu zaio sehaska-kanta abestea?
 - a) Amari.
 - b) Aitari.
 - c) Arrebari.
- Zer egin beharko du arrebak lokartzeko?
 - a) Esne beroa hartu.
 - b) Izarrak zenbatu.
 - c) Arkumetxoak zenbatu.

6 Irakurri oharra eta erantzun.

Haurtxo negartiaren familia:
 Hori da hori alamenaren zuen
 semetxoak gauero ematen duena!
 Mesedez egin zerbait isil dadin
 eta lo egin dezan. Gauetan ezin
 dut lorik egin eta goizero logura
 naizela joaten naiz lanera.
 Mila esker.

Auzotar bat

- Nork idatzi du oharra?
- Nori idatzi dio? Zertarako?

7 Idatzi beste ohar bat, aurrekoari erantzunez, Unaxen familiako izenean.

- Jarri norentzat den oharra.
- Azaldu azaldu beharrekoa argi eta garbi.
- Jarri azkeneko agurra eta ez ahaztu oharra sinatzea.

ASKOTARIKO ADIMENAK

8 Aukeratu eta azaldu. Zer egin behar da gauetz?

- ☐ Telebista bolumena topera duela ikusi.
- ☐ Hortzak garbitu eta goiz oheratu, deskantsatzeko.
- ☐ Txirula jo, musikan nota on-ona ateratzeko.
- ☐ Ahalik eta isilen ibili, etxeakoak eta auzokoak ez molestatzeko.
- ☐ Oso berandura arte jolasean ibili.

9 Zer egiten duzu zuk gauero oheratu aurretik? Eta ohean sartzean? Ba al daukazu irakurtzeko edo zerbait egiteko ohiturarik?

